

## **AGIRI POLITIKOA**

Agiri hau sinatzen dugun GGKEek garaia heldu dela uste dugu. Justizia globalaren eraikuntzarekin dugun konpromisoak, norabide horretan aurrera egin ahal izateko elkarrekin lan egiteko ardura hartzera behartzen gaitu. Proiektu neoliberalaren izaera hegemonikoak eta honek munduko herrientzat dakarren inboluzioak kooperazioaren sektorea ere kolonizatu du. Proiektu neoliberal horren ideia, printzipio eta balio sistema inposatu zaigu, sektorearen erradikaltasuna mugatu eta bere aukera eraldatzaileak kamustuta.

Nazioarteko hainbat gailurretan zein esangura txikiagoko beste dokumentuetan oinarrituta eraiki den armazoi teorikoaren ondorio da Agenda 2030aren corpus ideologikoa. Corpus horretatik abiatuta eraiki deniruditerian lehentasunak, helburuak, printzipioak eta balioak kontsentsu neoliberalaren ildo estrategiko nagusien arabera ordenatu eta arautzen dira.

Arrazoi horregatik ez dugu gure egiten Agenda 2030 garapenerako agendaren elementu egituratzaile bezala, estatus quo neoliberalarekin duen adostasuna dela eta, ez diolako desparekotasunaren egiturazko arazoiei behar bezalako erantzunik ematen. Ez, ezin diogu jarraipenik eman Milurteko Garapenerako Helburuak izan ziren porrotari. Lankidetzaren eraldatzeko beharra eta urgentzia dagoela sinetsita gaude, eta hori internazionalismoan, feminismoetan, giza eskubideetan eta aldaketa klimatikoaren aurkako borroka egituratuko duen bizitzaren iraunkortasunean oinarrituko den kontra-hegemoniko batetik egin behar dela uste dugu. Horiek izango dira, eurozentrismoa eta kolonialismoa gainditzen lagunduko diguten epistemologia kritikoak gehituta, gure jardun kolektiboa sostengatuko duten erreferentzia ideologikoak.

Eginkizun horri heltzeko artikulazio politikorako espazio bat osatzea erabaki dugu, egungo sistemaren elementu kritikoak agendan kokatu eta sistema beraren eraldaketan eragingo duen ahots propio eta ezberdindu bat goratzeko. Eredu neoliberal salatzeko bokazioarekin jaiotako gara, eta kritikoak gara interes korporatiboek agenda globalen definizioan duten eraginarekin, bai eta agenda hori garapenerako sistemetan inposatzearekin ere. Lankidetzaren politika publikoak diseinatu, ezarri eta ebaluatzen parte hartzeko espazioak proposatzen ditugu elkarriketa politikoko prozesuetan, bai eta emantzipazio proiektuen alde borrokatzen duten erakunde eta mugimendu sozialen arteko aliantzak sortzea ere. Jakin badakigu ematen ari garen urrats honek zailtasun eta oztupo asko ekarriko dituela.

Kontra-hegemonikoak diren kontraera eta logiketan oinarritutako alternatiben sustapenean oso aurkako testuinguruei aurre egin behar izan zaio beti. Halarik ere, gaur ahotsa goratu eta babesgabeenen alde, eta desparekotasuna eta injustizia sortzen duen sistemaren aurka, subjektu kolektibo bezala kokatu nahi dugu.

## Eskakizun zehatzak:

1. Kapitalaren interesekin loturarik izango ez duen garapenerako politika publiko zehatz baten diseinua eskatzen dugu, kanpo politika orokorraren lehentasunen definizioan ardatz nagusia izango dena eta baldintzen mepenkotasuna zein presiorako tresna bezala erabiltzea eragotziko duena. Instituzio eta departamentu ezberdinek garatzen dituzten politiken koherentzia erraztuko duten barne-koordinaziorako mekanismoak abiaraztea exijitzen dugu.
2. Aldamiaia teoriko bezala txertatzea internazionalismoaren, feminismoen eta eskubideen ikuspegia Plan Zuzentzailearen lehentasun zehatzetan, dokumentu estrategikoetan eta deialdi zehatzetan ere. Lankidetzaren eredu hegemonikoaren corpus teoriko eta ideologikoaren alternatiba bat eraikitzea eskatzen dugu, gaur egungoak ez baitie desparekotasunaren egiturazko arrazoiei heltzen eta eredu neoliberal hegemonikoaren makulu baita.
3. Nazioarteko konpromisoekin bat etorriko den beharrezko baliabideen zuzkidura (%0,7a). Besteak bezala, politika publiko honek baliabide egokiak izan behar ditu, errealitate bihurtu eta asmoen adierazpen hutsal batean geratu ez dadin.
4. Elkartasun eta lankidetzaren erakundeak indartzeko apustu garbia eskatzen dugu, diseinu, kudeaketa eta ebaluazio estrategia parte hartzaile eta kualifikatuaren testuinguru batean.
5. "Proiektukeria" gaitutako duen prozesu-logika batean lan egitea ahalbidetuko duten lanabesen abiaraztea, GGKEen indar eraldatzailea mugatzen duen burokrazia murrizteko helburuarekin.
6. Ikuspegi emantzipatzaile batekin eraldaketa alternatiben alde borroka egiten duten erakunde eta mugimendu sozialekin aliantzak lehenestea.

